




**EUSKO JAURLARITZAREN ETA FORU ALDUNDIEN  
SUPERABITA 2007an**

*2008ko maiatza*

2008ko lehenengo hilabeteetan gizarte-ereduari buruz egin genuen kanpaina, EAEko instituzioen politika atzerakoia zela salatu genuen. Orduan azaldu genituen frogetako bat urtealdiak superabitez ixtea zen.

Orain, 2007ko datuak jakin berri ditugu. Eusko Jaurlaritzak eta Foru Aldundiek, iaz, 1.396 milioi euroko superabita izan zuten (antzinako 232.275 milioi pezeta, alegia). Kopuru hori instituziook 2006an izan zuten superabita baino %20,8 handiagoa da.

### **EUSKO JAURLARITZAREN ETA FORU ALDUNDIEN SUPERABITA.** **2000-2007**




*Iturria: Eusko Jaurlaritza*

Grafikoan ikus daitekeenez, oraingo hamarkadako ekitaldi guzti-guztietan egon da superabita. Are gehiago: azken urteetan, oso hazkunde handia izan du superabit horrek.

Horrek esan nahi du Eusko Jaurlaritzak eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Aldundiek sistemaz lehenesten dutela superabita lortzea, gizarte-gasturako zuzkidurak handitu beharrean. Hau da: gizarteko premiak ase ordez, zor publikoa kitatu eta finantza-kontuetan dirutzak izan nahiago dute.

Aldundien eta Eusko Jaurlaritzaren superabita harrigarria bezain eskandaluzkoa da. 2007an, BPGaren %2,1ekoa izan zen; hots, EAEn sortzen den aberastasunaren %2,1 bestekoa. Grafikoak argi erakusten du azken urteetako superabita markak hautsi egin dituela.


**EUSKO JAURLARITZAREN ETA FORU ALDUNDIEN SUPERABITA.**  
**(BPG %). 2000-2007**



*Iturria: Eusko Jaurlaritza, Eustat.*

Zifra horiek ez datoz bat Europar Batasunean gertatzen denarekin. 2007an, Europar Batasuneko defizit publikoa BPGaren %1ekoa izan da, EAEn, esan dugunez, BPGaren %2,1eko superabita egon delarik.


**AURREKONTU EMAITZA. (BPG %). EAE ETA 27-EB. 2007**



*Iturria: Eusko Jaurlaritza, Eustat, Eurostat.*

Bere aldetik, Espainiako Bankuaren arabera, EAEko zor publikoa BPGaren %1,4koa bakarrik da. Zifra hau ere oso ezberdina da Europar Batasunean dagoen batez-besteko zor publikoarekiko (BPGaren %58,7).

#### **ZOR PUBLIKOA. EAE, EUROPAR BATASUNA. 2007. (BPG%)**




*Iturria: Eurostat, Espainiako Bankua*

Argi dago, beraz, benetako politika aurrekontuak superabitez ixtean datza, uneko inguruabarrak honako hauek badira ere.

#### **Gizarte-babeseko gastuak Europar Batasuneko txikienetakoak dira**

EAEEn, ongizateko estatuaren garapena Europar Batasuneko eskasenetakoa da. Zehazki, EAEEn BPGaren %18,9 bideratzen da gizarte-babesera, Europar Batasunean xede horretara, batez beste, %27,6 zuzentzen delarik. Hau da: urtean 5.000 milioi euro gehiago gastatu beharko lirateke gizarte-babesean, Europako batez bestekora heltzeko.


**GIZARTE-BABESEAN EGINDAKO GASTUA (BPG %).**  
**EUROPAR BATASUNA, 2004**



*Iturria: Eurostat, Eustat, IEN.*

Defizitak gizarte-babesaren arlo guztiak jotzen ditu (zahartzaroa, osasun-laguntza, elbarritasuna, familia, langabezia, bizirik irautea eta etxebizitza), honako grafiko honek frogatzen duenez.

**GIZARTE PRESTAZIOAK, FUNTZIOEN ARABERA. 2004. (BPG %)**



*Iturria: Eustat, Eurostat*

Superabita izan beharrean, EBko batez besteko aurrekontu-defizita izanez gero, gizarte-babeseko diferentzialaren herena zuzendu liteke. EAEko gizarte-babeseko gastuaren eta EBko batez bestekoaren artean dagoen diferentzuala BPGaren 8,7 puntukoa da. Aitzitik, jauzia 3,1 puntu txikiagoa litzateke (hau da, %35,6 txikiagoa edo, bestela esanda, 2.060 milioi euro gutxiagokoa) Eusko Jaurlaritzak eta Foru Aldundiek, 2007an izan zuten superabitaren ordeza, Europar Batasuneko batez besteko defizita izan balute.

### **Erreforma fiskalen ondorioz zerga-bilketan jazotzen den galera**

Hona hemen euskal instituzioen zerga-politikaren berezitasunak:

- Presio fiskal urria.- EAEko presio fiskala BPGaren %32,6koa da, alegia, Europar Batasuneko batez besteko %39,7a baino 7,1 puntu txikiagoa. Europar Batasuneko azkenekoak gara, presio fiskalari dagokionez.
- PFEZn eta Sozietateen gaineko Zergan egindako erreforma sarriek, nabarmenki murrizten dute diru-bilketa.- PFEZn eta Sozietateen gaineko Zergan egindako azken erreformak, berak bakarrik, 430 milioi eurotik gorako galera eragiten du urteko bilketan. Dirutza horien zati handiena errenta handietara, enpresetara eta kapital-errentetara doa.

### **Superabitaren erabilera zergak murrizten joateko**

Superabitaren politikak etorkizunean zerga-murrizketa gehiago egiteko estaldura ematen du. Ildo horretan, koherentzia handia dago gizarte-babesari pisu eskasa esleitzen dion gastu-politikaren eta kapitalari mesede egiten dion zerga-politikaren artean. Bistan dagoenez, bi politika horiek elkarren osagarri dira, galtzaileak, beti, biztanleria, langileria eta txartoen bizi diren gizarte-kolektiboak direlarik.